



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 8a

33. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeko izangai-zerrenda bat egitekoa (20. or.).
- Lantaldea, gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzea. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (26. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. Udalaren 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
  - IV.1. 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (6. or.).
  - IV.2. Legezotasunaren betetzeari buruzko iritzia (6. or.).
  - IV.3. 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko -finantzarioa (7. or.).
  - IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (9. or.).
- V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).
  - V.1. 2014ko aurrekontu-betetzearen egoera-orria (10. or.).
  - V.2. 2014ko aurrekontu-emaizta (10. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (11. or.).
  - V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (11. or.).
  - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua, 2014 (12. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (14. or.).
  - VI.2. Langileak (14. or.).
  - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).
  - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).
  - VI.5. Inbertsioak (16. or.).
  - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).
  - VI.7. Hirigintza (19 or.).

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Aranguren Ibarreko Udalaren 2014ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Aranguren Ibarreko udalerrak 40 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean 8.982 biztanle dauzka. Honako herri hauek osatzen dute: Aranguren, Labio, Taxoare, Zolina, Ilundain, Gongora, Lakidain eta Mutiloa.

Udalak aurrekontu bakarrean kudeatzen ditu ibarreko herrien eskumen guztiak, ibarreko kontzejuek, beren borondatez, eskumenak Udalari eskuordetu ondoren eta Mutiloagoiti eta Mutiloa-beiti kontzejuak bateratze bidez desegin ondoren.

2014ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aitortutako eskubideak (2014)	Langileak, 2014-12-31n
Udala	11.482.590	11.868.818	66

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez toki-enpresa publikorik.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri garraiokoak eta ibai parkearen kudeaketari dagozkionak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 158.800 eurokoak izan dira guztira 2014an.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean parte hartzen du.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X		
Udal albienteak	X		
Hilerria	X		
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X		
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X		
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean			X
Musika eskola			X
Hirigintza	X		X
Lorategiak	X		
Hiri hondakinak		X	
Ur-hornidura		X	
Eskualdeko garraio publikoa		X	
Aranguren Ibarreko garraio publikoa			X
Liburutegia	X		
Jubilatuen Kluba	X		
Jubiloteka-jantoki osasungarria			X
Ludoteka			X
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X		
Argiteria publikoaren mantentzea	X		
Kale garbiketa	X		
Udal eraikinen garbiketa	X		
Kirolak	X		
Kirol jardueren kudeaketa			X
Udal-kiroldegiak	X		
Internet-udal telebista	X		
Euskara	X		
Kultura	X		
Gazteria			X
Ingurumena	X		
Babestutako enplegu soziala	X		
Enpleguaren sustapena	X		
Diru-bilketa exekutiboa			X
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa			X

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2013ko abenduaren 19an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2015eko apirilaren 7ko Osoko Bilkurak 2014ko kontuak onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitutako jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aranguren Ibarreko Udaleko langileei lan hau egiteko eman di-guten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Aranguren Ibarreko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia eta ondorioak agertzea:

- Ea Aranguren Ibarreko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, ondarearen, gastu zein diru-sarreraren, aurrekontuaren likidazioaren eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren irudi leiala adierazten duen. Halaber, ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak aztertu ditugu, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen araber.

- Zenbateraino bete den Udalak 2014an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA

Aranguren Ibarreko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren kontua: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren edo auditoriaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeke teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak aztertu dira.

#### IV. UDALAREN 2014KO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Aranguren Ibarreko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

##### UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak egiteko eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

##### NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** eratortzen da.

#### IV.1. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

Kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, Udalaren ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziak, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

## IV.3. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO -FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontuak 11,90 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori 0,41 milioi handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 12,31 milioikoak dira. Aldaketa horiek, funtsean, inbertsio berriei dagozkie.

Aitortutako betebeharrak 11,48 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 93ko betetze-maila izan dute. Betetze-ehuneko txikiena duen kapituluak inbertsioena da, ehuneko 86rekin. Betetze-maila handiena langileen gastuen kapituluari dagokio, ehuneko 98koa baita. Finantza-gasturik ez dago, ez eta finantza-aktiborik edo pasiborik ere.

Aitortutako eskubideek 11,87 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 96koa izan da. Zergen bidezko diru-sarreraren betetzea ehuneko ehunarekin gainekoa da, bai eta transferentzia arruntak eta ondare bidezko diru-sarrerak ere. Inbertsio errealen besterentzeak eta kapital-transferentziak ehuneko 73tik gorako betetze-maila dute.

Izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 66 eta ehuneko 34 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 74 dira; diru-sarrera horien ehuneko 20 jasotako transferentzietatik (arruntak) datoz.

Taula honetan adierazten da zertan gastatu den eta nola finantzatu den gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzabidea	Ehunekoa
Langileak	22	Tributu bidezko diru-sarrerak	53
Bestelako gastu arruntak	44	Transferentziak	34
Kapitaleko gastuak	34	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	13
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona 2014rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2013*	2014	2014-2013 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	11.254.531	11.482.590	2
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	11.254.531	11.482.590	2
Kitaturiko eskubideak, guztira	10.749.977	11.868.818	10
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	10.749.977	11.868.818	10
Gastu arruntak (1etik 4ra)	7.719.385	7.551.684	-2
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	7.719.385	7.551.684	-2
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	3.535.146	3.930.906	11
Finantza-eragiketetan egindako gastuak (8 eta 9)	0	0	!
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.345.253	8.817.865	6
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	5.969.132	6.260.037	5
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8tik 9ra)	0	0	
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	37	34	-8
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	77	83	8
Saldo ez-finantzarioa	-504.554	386.227	-177
Aurrekontu-emaitza doituia	-135.213	726.970	-638
Aurrezki gordina	625.868	1.266.181	102
Finantza-zama (3.etik 9.era)	0	0	
Aurrezki garbia	625.868	1.266.181	102
Zorpetze-mailaren ehunekoa	0	0	
Zorpetzearen-mugaren ehunekoa	7	14	100
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	7	14	100
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.412.731	1.874.690	33
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	499.787	716.578	43
Zor bizia	0	0	!

\* 2013ko kontuak auditatu gabe daude.

2014an, Udalak ehuneko bi gehiago gastatu du aurreko ekitaldian baino; diru-sarrerek, berriz, ehuneko 10 egin dute gora. Igoera hori justifikatzen da, nagusiki, inbertsio errealen besterentze-egatik, ia 800.000 euro handitu baitira.

Gastu arruntetan ehuneko biko jaitsiera izan da, eta diru-sarrera arruntek ehuneko sei egin dute gora. Gastuei dagokienez, arrazoa da ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuek behera egin dutela. Diru-sarrera arrunten igoera nagusiki zergen bidezko diru-sarreretan izandako igoerarengatik azaltzen dira.

Aurrekontu-emaizta doituak 0,73 milioiko superabita erakusten du; aurreko urtean, berriz, 0,13 milioiko defizita izan zuen.

2014an, aurrezki gordina 1,27 milioi eurokoa izan da. 2013ko ekitaldian, magnitude horrek 0,62 milioiko saldoa du. Zorrik ez dagoenez, aurrezki garbia zenbateko berekoa da.

Zorpetze-maila ehuneko 0koa da; zorpetze-muga, berriz, ehuneko 14koa.

Diruzaintza-gerakina 1,87 milioikoa da guztira; 2013ko ekitaldian, berriz, 1,41 milioikoa izan zen. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 0,716 milioikoa da guztira; 2013ko ekitaldian, berriz, 0,499 milioi eurokoa izan zen.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2014ra arte:

#### Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulu- Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014*
1 Zuzeneko zergak	2.775.564	3.341.621	3.112.189	3.006.829	2.734.177	3.039.369	3.545.621	3.396.440	3.671.714
2 Zeharkako zergak	531.948	1.915.588	535.583	2.181.463	1.000.703	1.238.292	757.898	465.014	365.536
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.500.479	1.867.561	1.693.357	1.804.931	1.865.826	1.898.571	2.187.206	2.107.678	2.222.786
4 Transferentzia arruntak	1.617.744	1.734.922	1.937.069	2.174.172	2.288.058	2.199.942	2.193.803	2.185.009	2.323.449
5 Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	177.968	418.382	449.678	447.233	1.068.590	341.590	241.130	191.112	234.380
6 Inbertsio errealen besterentzeak	6.637.630	3.776.696	15.755.473	708.823	6.230.302	1.002.330	562.260	580.341	1.369.732
7 Entitateari egindako transferentziak	7.312.866	14.746.894	5.489.404	3.708.934	2.523.501	3.933.416	7.912.479	1.824.383	1.681.220
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>20.554.199</b>	<b>27.801.663</b>	<b>28.972.753</b>	<b>14.032.385</b>	<b>17.711.157</b>	<b>13.653.509</b>	<b>17.400.398</b>	<b>10.749.977</b>	<b>11.868.818</b>

#### Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulu- Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014*
1 Langile-gastuak	2.036.202	2.196.410	2.676.502	2.988.254	2.934.744	2.879.054	2.854.617	2.401.692	2.466.842
2 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.203.206	3.574.332	4.102.819	4.489.036	4.770.062	4.791.880	4.994.607	4.822.443	4.605.228
3 Finantza-gastuak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
4 Transferentzia arruntak	394.362	402.189	531.312	532.589	592.235	590.957	729.380	495.250	479.614
6 Inbertsio errealak	8.130.169	23.972.248	21.995.669	3.885.793	5.808.918	7.099.603	9.785.431	2.744.308	3.320.436
7 Kapital-transferentziak	143.367	191.874	91.303	364.168	701.279	575.694	986.965	790.838	610.470
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>13.907.307</b>	<b>30.337.052</b>	<b>29.397.604</b>	<b>12.259.840</b>	<b>14.807.238</b>	<b>15.937.187</b>	<b>19.351.000</b>	<b>11.254.531</b>	<b>11.482.590</b>

\* 2014ko kontuak baizik ez dira auditatu.

Aranguren Ibarreko Udala etengabe hazten joan da azken urteotan. Hartara, 2001ean 4.050 biztanle izatetik 2014an 8.982 biztanle izatera pasa da.



Logikoa denez, hazkunde hori urteko aurrekontu desberdinetan islatu da, bai biztanle berriei zerbitzua emateko behar izan diren inbertsioengatik eta haien finantzaketarengatik, bai eta funtzionamenduko gastu eta diru-sarreraren igoerarengatik ere.

Nabarmendu beharra dago Udalak 2006tik 2014ra guztira 86,7 milioi euro egiten duten inbertsioak egin dituela zorpetze finantzariora jo behar izan gabe; horrek adierazten du eskura dituen baliabideak egoki aprobetxatu dituela.

#### IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	386.227
Doikuntzak	-475.107
Europar Batasunaren diru-sarrerak	464.686
Finantzatzeko ahalmena	375.806

Ikusi da Arangurengo Udalak bete egiten dituela bai finantza-egonkortasunaren baldintzak, bai gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora).

Halaber, Udalak finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zorrik ez duelako.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

**V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira 2014ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

**V.1. 2014ko AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	2.457.500	47.000	2.504.500	2.466.842	98	2.466.842	0	0
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.846.100	-108.000	4.738.100	4.605.228	97	4.191.022	414.206	9
3. Finantza-gastuak	0	0	0	0	-	0	0	-
4. Transferentzia arruntak	546.900	-6.000	540.900	479.614	89	393.690	85.924	18
6. Inbertsio errealak	3.470.000	405.860	3.875.860	3.320.436	86	2.829.303	491.133	15
7. Kapital-transferentziak	580.000	67000	647.000	610.470	94	428.105	182.365	30
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
<b>Guztira</b>	<b>11.900.500</b>	<b>405.860</b>	<b>12.306.360</b>	<b>11.482.590</b>	<b>93</b>	<b>10.308.962</b>	<b>1.173.628</b>	<b>10</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% betea	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	3.025.000	0	3.025.000	3.671.714	121	3.088.354	583.360	16
2. Zeharkako zergak	364.500	0	364.500	365.536	100	249.335	116.201	32
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.103.000	0	2.103.000	2.222.786	106	2.158.864	63.922	3
4. Transferentzia arruntak	2.207.000	0	2.207.000	2.323.449	105	2.230.589	92.860	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	151.000	0	151.000	234.380	155	210.881	23.499	10
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.750.000	0	1.750.000	1.369.732	78	1.369.732	0	0
7. Kapital-transferentziak	2.300.000	0	2.300.000	1.681.220	73	251.816	1.429.404	85
8. Finantza-aktiboak	0	405.860	405.860	0	0			
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	-			
<b>Guztira</b>	<b>11.900.500</b>	<b>405.860</b>	<b>12.306.360</b>	<b>11.868.818</b>	<b>96</b>	<b>9.559.570</b>	<b>2.309.247</b>	<b>19</b>

## V.2. 2014ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
+ Aitortutako eskubideak	10.749.977	11.868.818
- Aitortutako betebeharrak	11.254.531	11.482.590
= Aurrekontu-emaiza	-504.554	386.227
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	132.426	393.876
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	501.767	604.699
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	0	129.920
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaiza doitua	-135.213	726.970

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013	2014
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	195.908	1.846.474
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	756.279	2.309.268
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.830.471	1.890.508
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	73.339	52.670
(+) Gastuen itzulketak	0	861
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	2.464.181	2.406.833
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.471.220	1.607.268
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.064.190	1.173.628
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	205.000	252.228
(+) Diru-sarreraren aurrekontua	0	0
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	202.029	181.412
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.688.043	1.635.484
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	1.412.731	1.874.690
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	912.944	1.158.111
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	499.787	716.578

## V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

## Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A. Ibilgetua	182.137.417	180.186.713
1 Ibilgetu materiala	169.386.462	170.196.343
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	12.750.955	9.990.370
C. Zirkulatzaila	5.888.790	5.348.132
8 Zordunak	4.253.306	2.660.090
9. Diruzaintza.	1.632.484	2.688.043
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>188.023.207</b>	<b>185.534.845</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	186.415.940	184.063.625
1 Ondarea eta erreserbak	174.233.587	173.014.708
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	2.265.869	1.218.879
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.916.484	9.830.038
D Epe laburreko hartzekodunak	1.607.267	1.471.221
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpo-koak	1.607.267	1.471.221
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>188.023.207</b>	<b>185.534.845</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2014

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2014	2013	Hartzeko	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.986.612	1.940.322
61 Langile-gastuak	2.536.119	2.471.639	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	449.869	335.733
62 Finantza-gastuak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.557.519	2.480.289
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	577.477	555.374
64 Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	4.535.951	4.752.496	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.323.449	2.185.009
67 Transferentzia arruntak	479.614	495.250	77 Kapitalaren gaineko zergak	902.255	825.791
68 Kapital-transferentziak	610.470	790.838	78 Bestelako diru-sarrerak	1.615.459	1.581.707
69 Amortiziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	2.250.486	1.394.002	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>10.412.640</b>	<b>9.904.225</b>	<b>Guztira</b>	<b>10.412.640</b>	<b>9.904.225</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	2.250.486	1.394.002
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	-1.047	2.316	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	0	172.807	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	14.336	0
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	2.265.869	1.218.879	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>2.264.822</b>	<b>1.394.002</b>	<b>Guztira</b>	<b>2.264.822</b>	<b>1.394.002</b>

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Ez da aurkitu 2013ko fakturen zenbateko garrantzitsurik 2014ko aurrekontuari egotzi zaiotarik.
- Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.
- Udalak inbentarioa badu.
- 2014ko abenduaren 31n Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago; haietan, lursailen balioaren gaineko zergaren likidazioaren kobratzea erreklamatzeko du: 261.000 euro egiten du likidazio horrek.

### VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 2,47 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 22 eta gastu arrunten ehuneko 33.

2013ko ekitaldiari dagokionez, aitortutako betebeharrak ehuneko 3 handitu dira, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2013	2014	
Funtzionarioak	345.127	338.288	-2
Lan-kontratudun langileak	1.330.233	1.405.545	6
Gizarte-zamak	726.332	723.009	0
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>2.401.692</b>	<b>2.466.842</b>	<b>3</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko urtarrilean hasierako onespina eman zion urte horretako plantilla organikoari. Behin betiko onespina 2014ko martxoaren 13an argitaratu zen NAO-n, eta 59 lanpostu daude jasota –horietatik 30 lanpostu bete gabe daude–. Hona xehetasunak:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	9	6	3	3
Lan-kontratupekoak	47	20	27	25
Izendapen askea	3	3	0	0
<b>Guztira</b>	<b>59</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>28</b>

Nabarmendu beharra daukagu aldi baterako hiru langilek plantillan aurreikusitako gabeko lanpostuetan ari direla (ikastetxeko atezaintza, liburutegia eta obrak); horretaz gainera, gizarte-erregulazioa sustatzeko kontratatutako langileak daude, zeinak bost pertsona baitziren 2014ko abenduaren 31n.

2014ko abenduaren 31n, Udalean 66 pertsonak egiten dute lan guztira. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua
Udalbatzako kideak	1
Aldi baterako langileak-izendapen askea	3
Funtzionarioak	6
Lan-kontratudun finkoak	20
Kontratu administratiboa dutenak	28
Aldi baterako lan-kontratudunak	8
<b>Guztira</b>	<b>66</b>

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kabinetea	1
Idazkaritza	2
Arlo ekonomikoa	2
Herritarrentzako arreta bulegoa	4
Gizarte zerbitzuak	8
Gizarteratzearen arloko langileak	5
Kirola	2
Kultura	2
Euskara	1
Mantentze-lanak	7
Kale garbiketa	4
Obrak	4
Lorezaintza	8
Ingurumena	1
Aguazilak	7
Ikastetxe publikoa	3
Eraikinen garbiketa	5
<b>Guztira</b>	<b>66</b>

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2014ko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Gainera, egiaztatu da aldi baterako kontratuen izapidetzea egokia izan dela, eta horretarako zerrenda eguneratuak erabili direla.

Halaber, 29 lanpostuko lan eskaintza publiko bat badago.

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 4,61 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 40 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 61 egiten dute. Horiek horrela, ehuneko bost jaitsi da 2013 ekitaldiarekiko.

Kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Mutiloabeitiko industrialdea seinaleztatze eta industrialdearen marka-irudia diseinatze proposamena	Laguntza	Irekia; Europar Batasunean publikizaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	30.000	12	27.000
Aranguren Ibarreko Udalaren sorosle-zerbitzua eta igeriketako programak garatzeko proposamena	Laguntza	Irekia; Europar Batasunean publikizaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	134.898	6	131.896

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu da, bai eta kontratuen indaraldiak zuzenak direla ere.

Nabarmendu beharra daukagu ezen "smartcity" sistemarekin, Udalak, ibarrean dagoen zuntz optikoaren bitartez, kontsumoen xehakitzea ezagutzen duela, eta horrek aukera ematen duela haiek hobeki kontrolatzeko eta energia elektrikoaren kostuak gutxitzeko. Antzeko kontrol bat egiten da, halaber, Udalaren hainbat eraikinetako berokuntzatik heldutako gastuen gainean.

## VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 1,09 milioikoak izan dira: 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 9,5, transferentzia arrunten ehuneko 4,18 eta kapital-transferentzien ehuneko 5,32 egiten dute.

	Aitoritutako betebeharrak		2013-2014 aldea (%)
	2013	2014	
Toki entitateei	148.741	159.698	7
Enpresa pribatuei	18.000	12.000	-33
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	328.509	307.915	-6
4. Transferentzia arruntak	495.250	479.614	-3
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	790.838	610.470	-23
7. Kapital-transferentziak	790.838	610.470	-23
<b>Guztira</b>	<b>1.286.088</b>	<b>1.090.084</b>	<b>-15</b>

2013. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 15 jaitsi dira.

Honakoak dira 2014an egindako transferentzia garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Iruñerriko Mankomunitatea	158.800
Mutilvera kirol elkartearekiko hitzarmena	86.000
Mutibasketeko hitzarmena	45.000
Aranguren Televisiónekin egindako hitzarmena	20.000
Jubilatuen Kluba	18.000

Udalak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere. Transferentzia garrantzitsuenak izendunak dira eta urtero errepikatzen diren hitzarmenen bitartez gauzatzen dira. Onuradunek kasuko jarduerak egin izateari buruzko ziurtagiria aurkeztu behar dute, edo/eta jardueren oroitidazkia diru-laguntzaren ordainketa jaso aurretik.

Gizarte laguntzen kasuan, ez dago deialdirik; izan ere, halako laguntzak eskatzen dituztenei, baldintzak betetzen badituzte, laguntza horiek ematen joaten zaizkie, eskatzen duten hurrenkeran.

*Gomendatzen dugu diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat taxutzea eta haiei buruzko ordenantza orokorra onestea.*

## VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (3,87 milioi) ehuneko 86 bete da, eta 3,32 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 29.

Taulan 2006ko ekitalditik egindako inbertsioen bilakaera ikus daiteke. Nabarmentzekoa da 2007ko eta 2008ko kopuru adierazgarria.

Ekitaldia	Inbertsioen betetzea (%)
2006	8.130.169
2007	23.972.248
2008	21.995.669
2009	3.885.793
2010	5.808.918
2011	7.099.603
2012	9.785.431
2013	2.744.308
2014	3.320.436

2013koekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 21 egin dute gora, hau da, milioi erdi bat euro, Mugarteko urbanizazioaren ondorioz; urbanizazio hori ekitaldi honetan amaituko da.



Honakoak dira 2014an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Mugartea <sup>1</sup>	1.224.665
POCTEFA proiektu europarra	744.643
Mutiloa Plazako urbanizazioa	433.271
Belar artifizialeko zelaia	136.585

<sup>1</sup> 26. obra-ziurtagiritik 31.era bitartekoei dagozkie. Obra 2014an amaitu da. 2011n esleitutako lizitazio prozedura aztertu da, eta emaitza egokia da.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
POCTEFA poligonoko oinezkoen mugikortasuna hobetzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	287.457	5	250.773
POCTEFA poligonoko efizientzia energetikoa hobetzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	298.165	6	200.431
Mutiloabeitiko industria-seinaleztatzea eta marka-irudia diseinatzea	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe; eskaintza onena	65.790	3	63.513

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia – alderdi nagusietan –, bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta beteitzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

#### VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 11,87 milioioak izan dira; ehuneko 74 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko 26, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (6,26 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (2,32 milioi eurokoak) nabarmentzen dira, aurreko ekitaldian bezala.

Diru-sarreren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 96koa izan da.

2013. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 10 egin dute gora. Hona xehakiztea:

Diru-sarreren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		2014-2013 aldea (%)
	2013	2014	
1. Zuzeneko zergak	3.396.440	3.671.714	8
2. Zeharkako zergak	465.014	365.536	-21
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.107.678	2.222.786	5
4. Transferentzia arruntak	2.185.009	2.323.449	6
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	191.112	234.380	23
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.345.253	8.817.865	6
6. Inbertsioen besterentzea	580.341	1.369.732	136
7. Kapital-transferentziak	1.824.383	1.681.220	-8
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	2.404.724	3.050.952	27
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>10.749.977</b>	<b>11.868.818</b>	<b>10</b>

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmentzen dira. 2013ko ekitaldiarekiko alde handienak inbertsioen besterentzeetan daude.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak		2014-2013 aldea (%)
	2013	2014	
Lurraren gaineko kontribuzioa	1.508.964	1.689.192	12
Ibilgailuak	555.374	577.477	4
Lurren balio-gehikuntza	825.790	902.255	9
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	506.311	502.790	-1
EIOZa	465.014	365.536	-21
<b>Guztira</b>	<b>3.861.454</b>	<b>4.037.251</b>	<b>5</b>

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 1., 2. eta 3. kapituluetan diru-sarrera handiagoak lortu dira. 290 mila euroko igoera izan da.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,17	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,3-3,1	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	8-16	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

*Gomendatzen dugu haur eskolako hileko ordainketei dagozkien diru-sarrerak erregistratzea sortzapenaren irizpideari jarraituz.*

## VI.7. HIRIGINTZA

Aranguren Ibarreko Udalak hirigintza-zereginak eta obretakoak bere baliabideekin betetzen ditu; horretarako, arkitekto tekniko bat eta administrazio ofizial bat dauzka.

Hirigintza-garapenak lankidetzeta-sistema erabiliz egin dira. Udalak bere gain hartu du haien kudeaketa ekonomiko eta hirigintzakoa, eta horren truke urbanizazio-gastuen ehuneko lauko diru-sarrerak jaso ditu. Ez da hirigintza-hitzarmenaren figura erabiltzen.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Udalak ez dauka lurzoruaren udal ondarearen berriazko erregistrorik. Udalaren oroitidazkietan ekitaldian zehar eta aurreko ekitaldietan egindako hirigintza-jarduketak zehazten dira; horrek aukera ematen du finantzaketa atxikiarekin egindako gastuak egiaztatzeko.

Gaur egun, Aranguren Ibarreko udal plan orokorraren berrikuspena idazten ari da. Udalaren lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia 2014ko maiatzaren 16an onetsi du Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuak.

*Gomendatzen dugu hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeke izangai-zerrenda bat egitekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak proposatu du hautaprobak egiteko deialdia egin dadin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egiteko.

Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzaitzak kasuko txostenak eman dituzte proposamen horren inguruan.

Proposamen hori aztertuta, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenen arabera, hona ERABAKIA:

**1.** Onestea hautaprobak egiteko deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egitekoa. Deialdiaren oinarriak erabaki honi erantsi zaizkio.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak aldi baterako kontratatzeke izangai-zerrenda bat egitekoa**

Hauek dira deialdiaren oinarriak:

#### **1.- Helburua.**

Deialdi honen xedea da hautaprobaren bidez osatzea administrari-lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharrei aldi baterako erantzuna emateko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratazeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan 15 administrari-lanpostu (C maila) daude, eta horietako hiruri euskara-titulua eskatzen zaie. Hautaprobak berberak izanzen dira izangai guztientzat, eta, horien emaitzak ikusita, administrari-lanpostuak betetzeko aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda bat prestatu eta onetsiko da, puntuazio handienetik txikienera osatua.

Euskaraz jakitea berariaz eskatzen duten lanpostuetan aritzeko aukera izanzen dute deialdi honetan aipaturiko administrari-lanpostuetan aldi baterako kontratatzeke izangai-zerrendan egoteko hautatutako izangaiak, baldin eta beren eskabidean hori adierazten badute eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean 2. oinarriko d) letran ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

#### **2.- Parte-hartzaileen betebeharrak.**

**2.1.** Izangaiak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiar edo Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete; betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude. Orobat, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Goi mailako batxilergoko titulua, bigarren mailako lanbide heziketako titulua edo ofizialki horien baliokide deklaraturako beste titulu bat izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

Atzerrian lortutako tituluak badira, haien homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Euskaraz dakiten administrariaren kontratazioan ere parte hartu nahi duten izangaientzat: Nafarroako Gobernuaren EGA titulua izatea, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidetzat aitortua dagoen ziurtagiria, edo behar den hizkuntza-eskakizuna zehazten duen proba bat gainditzea, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat. Proba hori onartuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen eginen da.

e) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana, ezta diziplinako kaleratze bidez bidali izana ere.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira betebeharrak; baita hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean ere.

2.3. Kontratazioarako deitzen diren izangaiek baino ez dute aurkeztu beharko betebeharren betetzea egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa edo kopia konpultsatua, dagokion kontratua formalizatu baino lehen.

Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta haien egintza guztiak deuseztatuta geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

### 3.- Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakari andreari zuzendu, eta Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo beste erregistro batzuetan, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluari jarraituz.

3.2. Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, eskabideari postako langileek data eta zigilua jar diezazkionten, ziurtapena egin aurretik.

3.3. Eskabideak I. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izanen dira, eta eskuratu ahaliko dira Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean nahiz Nafarroako Parlamentuaren webguneko ([www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es)) "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean.

3.4. Parte hartzeko eskabidean izangaiek adierazi behar dute baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.5. Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute.

3.6. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte eta, zein den kasua, 2.1.a) oinarrian nazionalitateari eta ahaidetasunari buruz eskatzen diren

baldintzena ere bai. Gainera, zinpeko aitortpena edo hitzmatea aurkeztu beharko dute, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikoan aritzea eragozten dien inolako diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez izateari buruzkoa.

3.7. Euskaraz dakiten administrazioen lanpostuetan kontratatutak izan nahi duten izangaiek deialdian eskatzen den titulazio ofizialaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute, eskabidearekin batera. Titulazio hori ez daukaten eta deialdi honetako 2. oinarriko d) letran aipatutako proba egin nahi dutenek horixe adierazi beharko dute eskabidean.

3.8. Desgaitasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora- edo baliabide-egokitzapenik behar badute, horiek eskabidean eskatu beharko dituzte; horretarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, organo eskudunak emandako legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren kopia ere aurkeztu beharko dute.

### 4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

### 5.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak jarriko ditu jendaurrean, bai Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean bai [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es) webguneko "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" atalean. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko dira onartuen behin betiko zerrendak.

5.2. Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratu ondoko bost egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazioak egin ahaliko dituzte, edo eskabideko akatsak zuzendu. Erreklamazioak aurkezteko epea iragan eta horiek ebatzi ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es) webgunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, hain zuzen ere, bai eta Parlamentuko iragarki-oholean ere.

5.3. Hautaprobea 2016ko bigarren hiruhilekoan egitea aurreikusten da. Hautapobaren eguna, ordua eta tokia [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es) web-

gunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, argitaratuko dira, baita Parlamentuko iragarki-oholean ere, hamabost egun natural lehenago, gutxienez.

5.4. Onartuen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortu egiten zaienik deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioak bere eskuetan daukana aztertutakoan baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatuz gero, interesdunek deialdian parte hartzeagatik eduki litzaketan eskubide guztiak galduko dituzte.

5.5. Izangai onartu eta baztertuen zerrenda argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aipatzen diren ondorioetarako.

#### **6.- Kalifikazio-epaimahaia.**

6.1. Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Alberto Catalán Higuera jauna, Parlamentuko 2. lehendakariordea.

Ordezkoa: Maiorga Ramirez Erro jauna, Parlamentuko 1. idazkaria.

Epaimahaikidea: Sergio Zozaya Garralda jauna, Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Gorka Aldatz Payan jauna, administraria.

Epaimahaikidea: Laura Vidán Astiz andrea, administrazio-kudeaketako erdi-mailako teknikaria.

Ordezkoa: Belén Armendáriz Semberoiz andrea, administraria.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak hautaturiko ordezkari bat.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak hautaturiko ordezkari bat.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, legelaria.

Ordezkoa: Manuel Pulido Quecedo jauna, legelaria.

6.2. Epaimahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko legez ezarritako arrazoiak gertatzeagatik epaimahaiaren osaera aldatuko balitz, halaxe jakinaraziko litzateke, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendekin batera.

6.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratuko da epaimahaia. Parlamentuko Langileen Batzordeak

hautatutako ordezkarien izendapena onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera egingen da.

6.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez ere kideen gehiengo osoa bildu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliodunak izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

6.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6.6. Epaimahaiak aholkulari espezialisten laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek lankidetzan ariko dira epaimahaiarekin, beren espezialitate teknikoetan jardutera mugaturik.

#### **7.- Hautaketa-prozesuaren bilakaera eta balorazioa.**

7.1. Hautaketa-prozesua ariketa baten bidez egingen da, eta ariketa horrek bi proba izanen ditu:

a) Lehenbiziko proba: Proba honetan aukera anitzeko galdera sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun zuzena bakarria izanik. Gaiak deialdiko II. eranskinen A) atalean ageri direnak izanen dira. Erantzun okerrak zigortu egingen dira. Probaren balorazioa 40 puntukoa izanen da gehienez ere, eta kanpoan geldituko dira gutxienez ere gehieneko puntuazioaren erdia (20 puntu) lortzen ez duten izangaia.

b) Bigarren proba: Proba honetan ere aukera anitzeko galdera sorta bati erantzun beharko zaio, erantzun zuzena bakarria izanik. Gaiak deialdiko II. eranskinen B) atalean ageri direnak izanen dira. Era berean, izangaien hitzezko, zenbakizko eta ortografiatzeko gaitasunak ebaluatuko dira. Erantzun okerrak zigortu egingen dira. Probaren balorazioa 40 puntukoa izanen da gehienez ere, eta kanpoan geldituko dira gutxienez ere gehieneko puntuazioaren erdia (20 puntu) lortzen ez duten izangaia.

7.2. Izangaien puntuazio osoa lehenengo eta bigarren hautaprobetan lortutako puntuazioak batzearen emaitza izanen da. Gainditzeko, horietako bakoitzean eskatutako gutxieneko puntuazioa eskuratu beharko da.

7.3. Bi probak egun berean egingen dira, bata bestearen ondoren. Probak hasi baino lehen zehaztuko du epaimahaiak bi proba horietako bakoitzaren gehieneko iraupena. Proba horiek egiteko ez da inongo testurik kontsultatu ahal, ez eta hiztegirik, kalkulagailurik edo bestelako mate-

rialik erabili ere, mutur lodiko tinta beltzezko bolaluma izan ezik.

7.4. Ariketa bakoitzerako, deialdi bakarra eginen da. Izangaiek nortasun agiri nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta deialditik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren izangaia.

7.5. Proba egiteko orduan, halaxe eskatzen duten minusbaliatuek denbora eta baliabide aldetik posible diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaldu dutenaren arabera.

### **8.- Onartuen zerrenda, deia eta kontratazioa.**

8.1. Proba kalifikatu eta egon daitezkeen berdinketak ebatzi ondoren, epaimahaiak deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera, argitaratuko du [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es) webgunean, "Transparencia/Listas y convocatorias Personal/Convocatorias públicas de personal/Ejercicio 2016" izeneko atalean, eta Parlamentuko iragarki-oholean.

Halaber, epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio zerrenda, horrek onetsi dezan, hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera.

8.2. Puntuazioari dagokionez izangaien artean egon daitezkeen berdinketak hautaprobetan asmatze gehien izan dituen izangaiaren alde ebatziko dira. Berdinketek hala ere jarraitzen badute, okergutxien izan dituen hartuko da aintzat. Berdinketak jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da. Zozketa kalifikazio-epaimahaiak eginen du, eta ukitutako izangaiei bertan agertzeko deia eginen zaie.

8.3. Prozesua gainditu duten izangaiei deitu ahalko zaie Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera, deialdi honetako oinarrietan, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoarekin bat, eta aldi baterako administrazio kontratua eginen zaie, administrari edo euskaraz dakien administrari gisa, C mailan;

lanpostu horri dagozkion lansariak izanen dituzte, plantillako langile finkoei berez dagozkienak izan ezik.

8.4. Izangaiei dei egiterakoan, kontuan hartuko da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duen apirilaren 10eko 13/2015 Foru Legean ezarritakoa, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeari dagokionez.

8.5. Kontratatuari alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eta bertan afiliatuko dira. Beraz, haiek ordaindu beharko dituzte kasuan kasuko kuota eta PFEZaren atxikipenaren zenbatekoa.

8.6. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak sei urteko indarraldia izanen du, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onesten duenetik aurrera zenbatuta, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduari bat.

### **9.- Errekurtsoak.**

9.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

9.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo kalifikazio-epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

## I. ERANSKINA (Eskabide-eredua)

1) Norberaren datuak:

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

NAN zk.: \_\_\_\_\_ (erantsi fotokopia). Jaioteguna: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_

Probintzia: \_\_\_\_\_ Posta kodea: \_\_\_\_\_

Telefonoa(k): \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

2) Euskara-titulazio ofiziala egiaztatzea (euskaraz dakiten administrarien kontratazioan ere parte hartu nahi duten interesdunentzat bakarrik).

Euskaraz dakiten administrarien kontratazioan ere parte hartzea eskatzen dut.

Deialdian eskatzen den titulazio ofiziala daukat (fotokopia erantsia).

Euskarazko hizkuntza-nahikotasuna frogatzeko proba egitea eskatzen dut, deialdian ezarritako ondo-oietarako. (Soil-soilik euskara maila ezin denean frogatu eskatutako titulazioaren bitartez).

3) Desgaitasuna frogatzea (bidezkoa denean bakarrik).

Desgaitasuna dut eta eskabidearekin batera horren frogagiria aurkeztu dut.

Desgaitasuna dut eta, horrenbestez, azaltzen dudana egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (Beste orri batean, minusbalioaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak azalduko dira, eta legeko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia erantsiko zaio).

4.- Horrez gain, hauxe adierazten dut:

– Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

– Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzuetatik bereizia izan eta ez naizela izan desgaitua, ez eta gabetua ere, eginkizun publikoak betetzeko.

– Baditudala deialdian eskatzen diren tituluak eta bertako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrariak izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat egiteko deialdian onartua izatea **ESKATZEN DUT**. Deialdia \_\_\_\_\_ zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, \_\_\_\_\_(e)(a)n.

2016ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)an

(Sinadura)

– Eskabidearekin batera, erantsi NANaren, pasaportearen edo beste edozein identifikazio-agiri ofizialen fotokopia.

– Eskabidearekin batera, erantsi euskara-titulazio ofizialaren fotokopia bat (bidezkoa bada).

– Eskabidearekin batera, erantsi legeko desgaitu-izaeraren frogagiriaren fotokopia bat (bidezkoa bada).

– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu emandako datu pertsonalak Nafarroako Parlamentuaren hainbat fitxategitan erregistratuko direla; zehatz-mehatz, "Giza Baliabideak" izenekoan, eta zuk horretarako baimena ematen duzula. Bildutako datuen helburua da Nafarroako Parlamentuko langileen giza baliabideak erregistratzeko eta kudeatzeko behar diren datuak eskuratzea. Haren erabilerak honakoak jasotzen ditu: langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko prozesuak, langileen prestakuntza, bateraezintasunen gaineko kontrola, lan arriskuen prebentzioa, altak eta bajak eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitateei eta gizarte aurreikuspeneko entitateei eginiko komunikazioak, bai eta lanean bertaratzeari buruzko kontrola ere.

Halaber, jakinarazi nahi dizugu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien tratamenduari kontra egiteko esku-bideak dituzula. Eskubide horietaz baliatzeko, idazki bat zuzendu beharko diozu Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, honako helbidera: Navas de Tolosa kalea, 1. 31002 Iruña (Nafarroa). Tel.: 948 209 209 Faxa: 948 228 444. Edo, bestela, posta elektronikoko honako helbidera: [registro@parlamentodenavarra.es](mailto:registro@parlamentodenavarra.es)



**II. ERANSKINA**  
**Gai zerrenda**

**A ATALA**

1. gaia: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.
2. gaia: Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua.
3. gaia: Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamendua.
4. gaia: Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua.

Oharra: Zein egunetan argitaratzen den deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, egun horretan indarra duen testuaren arabera eskatuko dira gai guztiak.

**B ATALA**

1. gaia: Informatika jakintza orokorrak: Microsoft Office 2010 (Word, Excel, Access).

## **Lantaldea, gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzea.**

### *GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Lantaldea eratzeko erabakia, gure gizartearen mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzea,” Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak 2016ko martxoaren 2an onetsia. Hona erabakiaren testua:

“**1.** Garapen Ekonomikorako Batzordean lantalde bat eratzea, gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzea.

**2.** Epe bat ematea, 2016ko martxoaren 11ko 12:00etan bukatuko dena, parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak ordezkaria eta ordezeko bat izenda ditzan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez.

**3.** Txostena egiteko epea bukatuko da lantaldea eratu eta hiru hilabetera, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren luzapenak.

**4.** Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen eraketari buruz”

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



